

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 12ko erabakiaren laburpena, zeinen bitartez Gasteizko udalerriko ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritzaren arloko enpresei aparteko laguntzak emateko udal programaren berriazko deialdia 2021. urtea onetsi baitzen

BDNS (Identif.): 554704

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/554704>)

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Enpresa pribatuak, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, berrogeita hamar langiletik beherakoak, gehienez 10 milioi euroko negozio-bolumena edo balantze orokorra dutenak, baldintza horiek betetzen ez dituzten enpresei lotuak ez daudenak, eta halakoek ehuneko 25etik gorako partaidetzarik ez dutenak, merkataritza-jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean gauzatzen dutenak, eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda daudenak:

651.2: Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza

651.3: Lentzeriaren eta kortseteriaren txikizkako merkataritza

651.4: Mertzeria-gaien txikizkako merkataritza

651.5: Jantzi berezien txikizkako merkataritza

651.6: Zapaten, larruzko produktuen eta imitaziozkoen, gerrikoen, diru-zorroren, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gauzen txikizkako merkataritza

651.7: Larrukigintzako jantzien txikizkako merkataritza

Bigarrena. Xedea

Gasteizko udalerriko pertsonen ekipamenduaren azpisektoreko enpresei laguntzea eta babes ekonomikoa ematea, eSARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek beren jarduerari eragin diotelarik.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2020ko abenduaren 11an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zenbakia, eta 2021ko martxoaren 12an, berriz, Gasteizko udalerriko ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien,

zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritzaren arloko enpresei aparteko laguntzak emateko 2021eko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 300.000,00 euroko zuzkidura du, 2021erako onetsitako udal aurrerakuntuko 0822.4314.489.64 Denda txikientzako laguntzak partidaren kontura 750,00 euroko dirulaguntza enpresa eskatzaileak diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzen duen lokal bakoitzeko, enpresa bakoitzeko gehienez 3.000,00 euroko mugarekin.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 15ean

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI